



2012/02/8ko prentsa-oharra

ESKaintza IMMOBILIARIOARI BURUZKO ESTATISTIKA, 2011ko 4. hiruhilekoa

**2011ko hirugarren hiruhilekotik laugarrenera, EAEko etxebizitza berrien metro koadro erabilgarriaren eskaintza-prezioa % 1 jaitsi da, eta erabiliarena, % 0,4.**

**Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,7 hilabetekoa da.**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako 2011ko laugarren hiruhilekoko eskaintza immobiliarioaren estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitza baten metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 3.842 eurokoa da, zertxobait jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, % -0,4, eta iazko hiruhileko berarekiko, gehiago, % -1,3. Bestetik, etxebizitza libre berriaren ere zerbait jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, % 1, 3.769 eurokoa baita, eta % 2,8 jaitsi da iazkoa hiruhileko berarekin alderatuta.

Araban agentziek saltzeko eskainitako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 1,4 jaitsi da, azken hiruhilekoan, eta 2010eko laugarren hiruhilekoarekiko alderatuz gero, % 4. Gipuzkoan % 2,2 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 6,2 2010eko laugarren hiruhilekoarekiko. Bizkaian, aldiz, % 1,2 igo da, 2011ko aurreko hiruhilekoarekiko, eta hortaz, azken 12 hilabeteotan, guztira, % 0,4 igo da.

Bilbon erabilitako etxebizitzaren metroko koadroko prezioa % 1,5 igo da. Donostian, % 0,2. Aitzitik, Vitoria-Gasteizen % 1,3 jaitsi da, epe berean. Azken hamabi hilabeteotako bilakaera kontuan izanik, Donostian igo egin dira eskaintza-prezioak, (% 0,8), eta Vitoria-Gasteizen eta Bilbon aldiz, hazkundera negatiboa izan da, % 4,1 eta % 0,5 gutxiago, hurrenez hurren.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezin agentziek esaten dute saltzaileek % 12,9 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du % 0,1 jaitsiera izan dela azken hiru hilabeteetan erregistratutakoarekiko, eta aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 2koa.



**Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa, 3.769 euroren bueltan baitabil, % 1,0 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta urtebeteko epean % 2,8ko jaitsiera metatua izan du.**


Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa jaitsi egin da Gipuzkoan, bai aurreko hiruhilekoarekiko, % 0,8 bai iazko laugarren hiruhilekoarekiko, % 3,9. Bizkaian, ostera, metro koadroaren prezioaren % 1,1 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta % 2,5eko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean. Araban, berriz, azken hiruhilekoko jaitsiera %1ekoa da, eta 2010eko laugarren hiruhilekoarekiko % 2,6koa.

**Etxebizitza librearen metro koadroaren prezioa % 1,7 igo da Donostian azken hiruhilekoan.**

Aldiz, Bilbon etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 3,4 jaitsi dira, eta Vitoria-Gasteizen, berriz, % 1,5. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroko eskaintza-prezioak % 14,4 egin du behera Bilbon, eta Vitoria-Gasteizen, % 3,4. Donostian aldiz, gora egin du, % 1,4.

**Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 9.700 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 3,1.**

Etxebizitzaren m<sup>2</sup> erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2011. Euskadiko AE. Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eskaintza immobiliariora buruzko estatistika

*EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duena.*

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jarritako batez besteko eskaintza-prezioa 308.300 eurokoa izan da, 2011ko laugarren



hiruhilekoan, % 1,1 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 3,1 aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.

Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa -340.200 eurokoa-, etxebizitza libre berria baino 31.900 euro gehiago, ia ez da aldatu azken hiruhilekoan, % 0,1 gutxiago, eta horrela, % 3ko igoera metatua izan du, azken 12 hilabeteetan; hau da, 9.900 euroko igoera.

Araban etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak % 2,1 jaitsi dira azken hiruhilekoan, eta % 4,7, azkeneko urtean. Etxebizitza erabiliaren prezioa, berriz, batez beste % 0,4 jaitsi da, azken hiru hilabeteetan; eta % 1,3, azken urtean. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 280.300 eurokoa da, eta erabiliarena, 269.100 eurokoa.

Bizkaian lauugarren hiruhilekoan 305.800 eurotan eskaini da etxebizitza librea. Aurreko hiruhilekoan erregistraturiko prezioa %0,8 jaitsi da, eta 2010eko lauugarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, jaitsiera % 2,3ra iristen da. Baina, erabilitakoen prezioa igo egin da, % 0,6 hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz; eta horrekin, aurreko urtekoarekiko % 5,8ko igoera izan du. Lurralde horretako etxebizitza erabiliaren egungo batez besteko prezioa 344.300 euroren bueltan dabil.

Gipuzkoak, berriz, eutsi egin die etxebizitzaren prezio garestienei, eta etxebizitza libre berria 325.700 euro kostatzen da, eta bigarren eskukoa, 379.400 euro. Lehenengo etxebizitza motaren prezioa % 0,7 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta bigarrenarena, % 1,7. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berriaren prezioa % 3,3 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoarena, % 4,8.

***Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 58.000 euro jaitsi zen Bilbon; 22.700 euro, Gasteizen; eta 15.400 euro Donostian.***

Azken hamabi hilabeteetan higiezinaren agentziek eta sustatzaileek % 13,2 jaitsi dute Bilboko etxebizitza libre berriaren prezioa. Gasteizen, % 7,3 jaitsi dute, eta Donostian, % 3,6.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 2,8 jaitsi da Bilbon; % 3,1, Vitoria-Gasteizen; baina Donostian igo egin da, % 0,4. Batez besteko prezioa 414.400 eurokoa da Donostian, 380.600 eurokoa Bilbon, eta, baxuena, 290.200 eurokoa, Vitoria-Gasteizen.

Bestetik, erabilitako etxebizitzaren prezioa ere jaitsi egin da azken hiru hilekoan; 272.200 euro eta hortaz, % 0,3 gutxiago; Bilbon, 398.000 euro eta % 0,8 gutxiago. 2010eko lauugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 1,3 jaitsi da, eta Bilbon, % 0,8. Donostian prezioek % 2,1 egin dute gora azken hiruhilekoan, eta azken urtean, % 6,6; eta hiruhileko honetan 529.100 eurotara iritsi dira.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

**Alokatzeko etxebizitza libreen batez besteko errenta 896 eurotan dago, eta babestutakoena -BOE eta etxebizitza sozialena-, 279 eurotan.**

Etxebizitza librearen kasuan % 2,7ko jaitsiera da hori, iazko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 0,9ko jaitsiera aurreko hiruhilekoarekiko. Babestutako etxebizitzaren batez besteko alokairua % 10,9 igo da azken hiruhilekoan, eta % 36,8, azken urtean.

Sektore babestua -BOEak eta etxebizitza sozialak- 112.000 euroko batez besteko prezioan ari da saltzen etxebizitzak, —1.532 euro metro karratu erabilgarri bakoitzeko—. Etxebizitza horien metro koadroko batez besteko prezioak % 1,1 egin du gora azken hiruhilekoen artean, eta 2010eko hiruhileko berarekin alderatuta, % 3,9.

***Higiezinen agentziek etxebizitza bat saltzeko batez beste behar duten denbora 8,7 hilabetekoa da, duela urtebete baino ia hilabete gutxiago.***



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

| HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO<br>INKESTA EUSKAL AUTONOMIA<br>ERKIDEGOAN           |                             | 2011ko 4.<br>hiruhilekoa |       | Aurreko<br>hiruhilekoarekiko<br>aldaketa |       | Aurreko urteko<br>hiruhileko<br>berarekiko<br>aldaketa |       |
|------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|--------------------------|-------|------------------------------------------|-------|--------------------------------------------------------|-------|
| ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA                                              |                             | Euroak                   |       | Euroak                                   | Ald % | Euroak                                                 | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | BOE berria/Etxeb. soziala   | 1.532                    |       | 17,3                                     | 1,1   | 57,9                                                   | 3,9   |
|                                                                                    | Berri librea                | 3.769                    |       | -39,0                                    | -1,0  | -107,9                                                 | -2,8  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 3.842                    |       | -16,3                                    | -0,4  | -49,4                                                  | -1,3  |
| Araba                                                                              | Berri librea                | 3.438                    |       | -35,1                                    | -1,0  | -93,3                                                  | -2,6  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 3.233                    |       | -44,4                                    | -1,4  | -135,4                                                 | -4,0  |
| Bizkaia                                                                            | Berri librea                | 3.802                    |       | -41,7                                    | -1,1  | -97,1                                                  | -2,5  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 3.766                    |       | 46,1                                     | 1,2   | 14,1                                                   | 0,4   |
| Gipuzkoa                                                                           | Berri librea                | 3.876                    |       | -30,3                                    | -0,8  | -157,7                                                 | -3,9  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 4.395                    |       | -99,4                                    | -2,2  | -290,2                                                 | -6,2  |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | (1) EREDUZKO<br>ETXEBIZITZA | 3.448                    |       | -9,3                                     | -0,3  | -48,5                                                  | -1,4  |
| Berria librea                                                                      | Gasteiz                     | 3.651                    |       | -55,5                                    | -1,5  | -129,2                                                 | -3,4  |
|                                                                                    | Bilbo                       | 4.655                    |       | -164,6                                   | -3,4  | -785,6                                                 | -14,4 |
|                                                                                    | Donostia                    | 4.838                    |       | 80,3                                     | 1,7   | 67,0                                                   | 1,4   |
| Erabilia                                                                           | Gasteiz                     | 3.271                    |       | -42,5                                    | -1,3  | -140,0                                                 | -4,1  |
|                                                                                    | Bilbo                       | 4.249                    |       | 64,8                                     | 1,5   | -19,8                                                  | -0,5  |
|                                                                                    | Donostia                    | 5.705                    |       | 13,6                                     | 0,2   | 47,1                                                   | 0,8   |
| ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA                                                 |                             | Milaka Euro              |       | Milaka Euro                              | Ald % | Milaka Euro                                            | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | BOE berria/ Etxeb. soziala  | 112,0                    |       | 1,7                                      | 1,5   | 1,8                                                    | 1,6   |
|                                                                                    | Berria librea               | 308,3                    |       | -3,5                                     | -1,1  | -9,7                                                   | -3,1  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 340,2                    |       | -0,5                                     | -0,1  | 9,9                                                    | 3,0   |
| Araba                                                                              | Berria librea               | 280,3                    |       | -6,2                                     | -2,1  | -13,7                                                  | -4,7  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 269,1                    |       | -1,1                                     | -0,4  | -3,6                                                   | -1,3  |
| Bizkaia                                                                            | Berria librea               | 305,8                    |       | -2,5                                     | -0,8  | -7,2                                                   | -2,3  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 344,3                    |       | 2,1                                      | 0,6   | 18,8                                                   | 5,8   |
| Gipuzkoa                                                                           | Berria librea               | 325,7                    |       | -2,1                                     | -0,7  | -11,0                                                  | -3,3  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 379,4                    |       | -6,4                                     | -1,7  | -19,1                                                  | -4,8  |
| ETXEBIZITZA ESKAINTZA                                                              |                             | Unitateak                | %     | Unitateak                                | Ald % | Unitateak                                              | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | Gutzizkoa                   | 44.643                   | 100,0 | 2.315                                    | 5,5   | 15.722                                                 | 54,4  |
|                                                                                    | BOE berria/Etxeb. soziala   | 6.845                    | 17,8  | -123                                     | -1,8  | 3.273                                                  | 91,6  |
|                                                                                    | Berria librea               | 5.549                    | 19,4  | 337                                      | 6,5   | 953                                                    | 20,7  |
|                                                                                    | Erabilia                    | 29.882                   | 51,2  | 2.120                                    | 7,6   | 11.698                                                 | 64,3  |
|                                                                                    | Soziala/Librearen Alokairua | 2.367                    | 11,5  | -18                                      | -0,8  | -201                                                   | -7,8  |
| ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO<br>ERRENTA                                     |                             | Euroak                   |       | Euroak                                   | Ald % | Euroak                                                 | Ald % |
| Euskal Autonomia<br>Erkidegoa                                                      | BOE / Soziala               | 279,2                    |       | 27,5                                     | 10,9  | 75,1                                                   | 36,8  |
|                                                                                    | Librea                      | 896,3                    |       | -8,1                                     | -0,9  | -25,2                                                  | -2,7  |
| ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN<br>BATEZ BESTEKO HILABETEA                    |                             | 8,7                      |       | -0,4                                     | -4,4  | -0,5                                                   | -5,3  |
| AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN<br>BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA<br>ERABILIAK |                             | %                        |       | Aldea<br>portzentajezko<br>puntutan      | Ald % | Aldea<br>portzentajezko<br>puntutan                    | Ald % |
| EAE                                                                                |                             | 12,9                     |       | -0,1                                     | -1,1  | -1,9                                                   | -13,0 |
| Araba                                                                              |                             | 4,8                      |       | 1,0                                      | 26,5  | -2,9                                                   | -38,0 |
| Bizkaia                                                                            |                             | 12,4                     |       | 0,5                                      | 4,0   | 0,9                                                    | 7,4   |
| Gipuzkoa                                                                           |                             | 14,3                     |       | -0,7                                     | -4,7  | -7,1                                                   | -33,0 |

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duena.

#### Ohar metodologikoa

2011ko laugarren hiruhilekoko datuak 176 higiezin-agentzik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 156 sustatzailek osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarrizketetatik atera dira. 2011n igo egin da informazioa ematen duten agentzien kopurua. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskainitako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorrek ateratzen dira, ausazko aldaketak gutxiagotzeko



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA**  
*Zerbitzu Zuzendaritza*  
*Estatistikarako Organo Berezia*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**  
*Dirección de Servicios*  
*Órgano Estadístico Específico*

---

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

*Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena*

*Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07*

*Prensa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.*

*WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.*